

KONTROL MOZIOA

2014tik eratorriak diren hainbat proiekturen exekuzioa dela-eta

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16an Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur gaurkoz badira oraindik ere 2014ean onartuak diren eta exekuzio proiektua egina eta proiektua osorik garatzeko beharrezko diru kantitate osoa jaso duten proiektu ugari martxan ez daudenak. Urtea amaitzeko hilabete eskas geratzen den honetan oraindik orain inolako mugimendurik ez zegoela ikusirik, interpelazioa egin eta Ogasuneko zinegotzi-ordezkarri Jaime Dominguez-Macaya jaunak erantzun franko eman zituen horren inguruan joan den asteko Ogasuneko batzordean. Erantzunak erantzun, hainbat proiekturi buruzko xehetasunak argitu gabe geratu ziren.

Horietako hainbat euren auzoetan eta auzokideen parte hartze zuzenarekin landuak izan dira, eta horrek are eta balio gehigarria eta garrantzi handiago ematen die.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari 2014tik eratorrita datozen proiektu horiek hilabeteke epean egin ditzala. Zehazki ondorengo proiektuak: Loiola Zeharbidearen proiektua (311.469 euro); N-1 zaharraren egokitzapena Herreran (341.052, 36 euro); Autonomia Kaleko pasarelaren berreskurapena (65.000 euro).

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Josu Mirena Ruiz Martin
EHBildu udal taldeko zinegotzia